

Debekuen gaintik, Maiatzaren Lehenean Iruñeko kaleak masiboki hartzeko deia egiten dugu

Prentsurrekoa egin dugu Iruñean, [Maiatzaren Lehenean](#) egingo ditugun mobilizazio eta ekimenak aurkezteko, Iruñea eta Baionan egingo ditugunak. Imanol Karrera Nafarroako eledunak eta Maider Jauregi komunikazio idazkariak hartu dute parte bertan. Imanol Karrera azaldu du 12:00etan egingo dugula Hego Euskal Herriko mobilizazioa, eta ekitaldia Iruñeko Gaztelu Plazan izango dela. Nafarroan dagoen Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak LABen sei manifestaziotik hiru debekatu ditu, orden eta bake publikoa zapuztu, ondasun eta pertsonen integritatea arriskuan jarri eta bizikidetzaren normal garatzea eragotziko dugula argudiatuz. Ez dugu M1 despolitizatu eta folklorikoa onartzen, ezta onartuko ere. Hori dela eta, masiboki kalera ateratzeko deia egin dugu.

Mobilizazioak [bost zutabe](#) izango dituela zehaztu du Karrera, “bost kolektibori dagozkionak: lantokietako gatazkak, feministak, langile migranteak, gazteak eta pentsionistak. Sektore guzti hauek langile klasearen barruko aktoreak dira gizarte-aldaketarako prozesu baterako”.

Mobilizazioek debekuak izan dituzte, eta, horregatik, hasierako planteamenduan aldaketak egin behar izan ditugula adierazi du Karrera. Nafarroan dagoen Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak eta Iruñeko Hiri-Seguratasuneko Sailak orden eta bake publikoa zapuztea argudiatzen dute, ondasun eta pertsonen integritatea arriskuan jarriz, eta baita bizikidetzaren normal garatzea ere hiria kolapsatuz.

Karrera adierazi du “langile-klasea kalean egoteak, Maiatzaren Lehena bezalako egun seinalatuan, antza, sistema gogaitu egiten du. Aldarrikapen laboral eta sozial anitzen presentziak gogaitu egiten du sistema, borroka sindikalak gogaitu egiten du”. Hala, LABeko ordezkariek nabarmendu du sistemak gero eta tresna gehiago dituela bere eskura: mozal legea, ordenantzak eta, oraingoa egin bezala, debekuak; hori guztia, gogaitu egiten duen guztia eragotzi ahal izateko.

“Maiatzaren Lehenaren despolitizazio eta folklorizazioaren aurrean, LABek dei egiten du kalera ateratzera. Gaur, inoiz baino gehiago, honakoak aldarrikatzeko. Batetik, gure klase izaera; Maiatzaren Lehenaren garrantzia aldarrikatzea borroka eta mobilizaziorako egun bezala”. Eta bestetik, gazteak, ikasleak, pentsiodunak, langabezian dauden langileak, feministak, migranteak, etxeko langileak, borrokan ari diren langileak, prekarietate modu berriak jasan behar dituzten langileak (ustezko autonomoak, bekadunak, azpikontratetako langileak...). Benetako mehatxua gara sistemarentzat, aliantzak sortu eta gure borroka guztiak artikulatzeko gai bagara, gai izango baikara jendarte eraldaketa bultzatzeko. Ez dituzte gure borroka ez gelditu ez isilduko. Elkar ikusiko dugu Iruñean Maiatzaren Lehenean”, amaitu du Karrera.

Autobusak Iruñera joateko

LABek Hego Euskal Herriko eskualde guztietan autobusak antolatu ditu Iruñean izango den Maiatzak Lehenaren ekimenetan parte hartzeko. Izena emateko bizi zaren udalerriko LABen eskualdeko egoitzara jo behar duzu.

Izena eman nahi baduzu autobusez joateko Iruñera, begiratu [hemen](#) zure eskualdeko LABen egoitzaren helbidea eta telefonoa. Prezioa, 5 €koa da.



Iruñean eta Baionan antolatu ditu LABek Maiatzak Lehenaren ekimenak

